

ZERGATIK UDALAK SUSTATU ENERGIA-KOMUNITATEAK?

Jarriaian datorren dekalogoak jasotzen ditu hamar arrazoi zeinagatik udal batek sustatu beharko lukeen energia-komunitate bat bere udalerrian.

1. Krisi klimatikoaren aurkako borrokan lagunduko duelako.
 - CO₂ isuriak murrizten lagunduko duelako.
 - Erregai fosilen kontsumoa murrizten lagunduko duelako.
2. Energia-komunitateak, trantsizio energetikoaren baitan, krisi klimatikoari aurre egiteko aukera ematen duelako.
 - Sorkuntza berriztagarria, mugikortasun jasangarria edo energia kontsumo murrizketa landu ditzakeelako
3. Energia eredu berria delako, demokratikoagoa.
 - Europar Batasuneko 2018/2001 eta 2019/944 zuzentarauetan adierazten den moduan, herritarra eredu energetikoaren erdian jartzen duelako.
4. Erabakiak tokian tokiko beharren arabera hartuko direlako.
 - Tokiko kooperatibak sortuko direlako eta bertako gobernantza izango dutelako.
5. Burujabetza energetikoan aurrerapausoa delako.
 - Oligopolioarekiko menpekotasuna gutxitzen duelako.
6. Herritarrek trantsizio energetikoan inplikatzeko bide bat delako.
 - Berriztagarriak erabiliz.
 - Kontsumoa murriztuz.
 - Energia komunitateen baitan sor daitezkeen bestelako ekintzak sustatuz.
7. Energia berriztagarrien instalazioak egikarrituko dituelako.
 - Energia komunitateen lehen urratsak proiektu fotovoltaikoak izaten ari direlako
8. Dependentsia energetikoari aurre egiteko bidean ekarpenak egin ditzakeelako.
 - Orokorrek, gizarte guztiarentzat.
 - Udaleko gizarte zerbitzuekin elkarlanean egoera zaugarrian daudenentzako.
9. Tokiko ekonomia hobetzen duelako.
 - Kalitatezko enplegua sortu dezakeelako (instaladoreak, gremioak...).
 - Enpresen lehiakortasunean efektu positiboa izan dezakeelako.
10. Herriko egitura sendotu eta erresilientzia hobetzen dituelako.
 - Tokiko gizarte sistemak sortzen dituelako.